

AUZITEGIAK. Etzi Madrilen epaituko dituzten gazteen aurka bosna urteko kartzela zigorra eskatzen du fiskalak

Gazteen aurkako «muntaiak» salatu dituzte Tafallan

Manifestazio jendetsua egin zuten

Erredakzioa | IRUÑEA

Asteartean Entzutegi Nazionalan epaituko dituzten Izaskun Baztan, Mikel Makaia, Mabel Pascual, Bea del Rio eta Natalia Jimenezen aldeko manifestazioa mila lagun inguru bildu zen atzo arratsaldean Tafallan.

Manifestazio buruan, bost auziperatuak joan ziren eta atzetik gazteen gurasoak eta hainbat herritar. Elkarretartzea isila izan zen. Akaberan Auzitegi Nazionalan «muntaien» aurka mintzatu ziren gazte

teok, eta euren delitu bakarra «gazteak eta abertzaleak» izatea dela esan zuten.

Zonaldeko Aldi Baterako Enpresetako (ABLE) zazpi zuzendariak gazteek nozitzen dituzten lan baldintza txarrak salatzen zituzten eskutitzak igortzeagatik, «mehatxu terroristak» egitea leporatu diete, eta bost urteko espetxe zigorra ezarri nahi zaie.

Defentsaren frogak onartu ez

Entzutegi Nazionalako 4. Epaitegiak ez ditu onartu bost gazte



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Mila lagun inguruk elkartasuna adierazi zieten asteartean Madrilen epaituko dituzten gazteei.

en defentsak aurkeztu frogak. Epaietan ezin izanen dira bost gazteen alde deklaratu behar zuten Tafallaldeako hainbatentestigantzak entzun: Gorka Lo-

rea (IU-EB), Kontxi Elorz (EA-EAJ) eta Koldo Arraiga (Batasuna) Tafallako zinegotziak, besteak beste.

Halaber, epaileak ez du fro-

gatzat hartuko Tafallako Udalak (UPN, PSN, Batasuna, IU-EB, EA-EAJ) aho batez onartutako mozioa: epaiketa Iruñean egiteko eskatu zuten.



ENEKO BIDEGAIN

Gazte taldeek «Euskal Herrian aske» bizitzea galdetu dute

Ipar Euskal Herriko gaztetxe, gazta asanblada, gazte aldizkari eta musika talde ugari beren atxikimendua eman diote ekainaren 22an Baionan iraganen den manifestazioari. Segiren ilegalizazioa eta gazte mugimenduaren kontrako erreprezioaren salatzeak, *Gazteria Euskal Herrian aske*,

errepresiorik ez lemapean, manifestazioa iraganen da, arratsaldeko 17:00etan, Lauga gelatik abiatu-rik. Hogeita hamar bat gazte prentsaren aurrean agertu ziren, atzo, datozen egunetan beren «eskubideen alde mobilizatzerak» deitzeko eta «gazteria martxan» dagoela baieztatzeke.

Gurasoak: «Gazteen aurkako zapalketa gogortu egin da»

Iñaki Uriarte | BILBO

Alderdi politikoei enfrontamenduari irtenbidea eman beharrean «gatazka areagotuko duten legeak egiten dituzten» bitartean, ehundaka gazte urte askotako kartzelaldia arriskatzen ari direla adierazi zuen Jesus Gonzalez Gorasoak elkarteko eldunak, atzo Bilbon emandako prentsurrekoan.

Gonzalazen arabera, atxiloteten «burrunda» informazioaren ostean, «estatu aparatuek erabiltzen duten zigorgabetza» ezintasunez ikusten dute gazteen senideek. Kasu askotan legeria bera ere bortxatu eta urratzen dela uste du.

Horren adibidetzat jo zituen iragan asteazkenean hiru ordiziarrei egindako epaiketa eta asteon Bilbon eta Espainiako Auzitegi Na-

zionalean egingo direnak. 22an Ordiziko hiru gazte Auzitegi Nazionalako Gazteen salan epaitu zituzten. Adingabeak zirela aintzat hartu aurretik inkomunikatuta, behin behineko espetxealdian eta 5 eta 25 urte bitarteko eskariak jasan zituzten.

Etzi Tafalla eta Berriozarko lau gazte epaituko dituzte ABLE bateko zuzendariari gutun bat bidaltzeagatik. Fiskaltzak 5na urteko kartzelaldia eskatu du gazteentzat.

Ostegunean, berriz, Busturialdeko gazte bi epaituko dituzte Bilboko Auzitegian kale borrokako ekimenak burutu izanaren akusaziopean. Gonzalezek esan zuenez, gazte horien kontrako froga bakarra atxilotuen autoinkulpazioa da. Fiskaltzak 6na urteko zigorra eta 6,5 milioi pezetako (39.065 euro) indennizazioa eskatu du.

Azken txanpa Zuberoren alde egin ezazu zure ekarpena

ZUBEROTARREKIN BAT AUZOLANEAN

maiatzak 31 baino lehen

902 33 88 66 | 05 59 46 13 89

www.udalbiltza.net

UDALBILTZA

Biba Xiberoa!